

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

1390

79/2021 DEKRETUA, martxoaren 2koa, zeinaren bidez gaitzen baitira 43.298.636,00 euroko kredituak 7111 Programan (Nekazaritza eta Landa eta Itsas Garapena), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2021. urterako aurrekontuko 9311 Programan (Europar Batasunarekiko Finantza Harremanak) diru-sarrerak lortu baitira.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileari 43.298.636,00 euroko diru-sarrerak ordaintzeko konpromiso irmoa hartu da, NBEF Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak finantzatzeko laguntzak eta LGNEF Landa Garapenerako Nekazaritzaren Europako Funtsak kofinantzatzeko laguntzak direla-eta.

Hori dela eta, dekretu honen bidez, diru-sarrera hori gaitzen da, bat etorritz Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak 82. eta 83. artikuluetan ezarritakoarekin.

Horrenbestez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko martxoaren 2an proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2021. urteko aurrekontuan kreditu-gaikuntza bat onartzea, gastuen egoera-orri honi dagokionez:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
7111	421,00	8.080.723,00
7111	452,00	29.862.350,00
7111	721,00	2.924.251,00
7111	722,01	211.564,00
7111	752,01	2.219.748,00
	Guztira	43.298.636,00

Kreditu hori sortu da, sarreren egoera-orri honetan kopuru bereko diru-sarrerak egon direlako:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9311	441,07	10.306.493,00
9311	441,08	27.636.580,00
9311	741,07	5.355.563,00
	Guztira	43.298.636,00

2021eko martxoaren 9a, asteartea

Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen jarduerak finantzatzeko erabiliko dira funts horiek.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 2an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.